

INTERPRETAZIOA

Epailearen, poliziaren eta medikuaren aurrean lan egiten duten itzultzaileak

Hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat da Centro de Comunicación Internacional deiturikoa. Iruñean dauka egoitza, Justizia Jauregiaren pare-parean, eta hortxe bere berezitasunetako bat. Ez kokapenean, bertako langileek Justizia Jauregira egiten dituzten joan-etorrietan baizik.

Jon Arbizuk 1996. urte inguruan hartu zuen enpresaren gidaritzatza. «Itzulpen enpresa bat saltzen zela irakurri nuen. Garai horretan irakaskuntzan nenbilen lanean, baina ez nengoen gustura eta enpresa erostea erabaki nuen». Erabakia «gehiegi pentsatu gabe» hartu zuela aitortu du Arbizuk. Orduan ez zuen urrundik ere uste hainbeste hizkuntza desberdin elkarrekin biziko zirenik Euskal Herrian. Hasieran enpresa txikia zen, baina orain mugimendu handia du. «Beharra asko handitu da. Etorrin kopurua asko igo da hasi ginenetik gaur arte eta ikusten da beharra dagoela elkarrekin komunikatzeko».

Hasieran beste edozein itzulpen enpresaren berdina bazen ere, 2000. urtean asko aldatu zen enpresaren norabidea. Urte horretan Nafarroako Gobernuak Justizia Jauregiko itzulpen eta interpretari lanak egiteko lehaketa deitu zuen, eta Centro de Comunicación Internacional enpresak lortu zuen lan hori.

«Lehen, immigrazio uholdea iritsi baino lehen, oso zerbitzu gutxi ematen ziren Iruñeko epaitegian. Itzultzaile batek egiten zituen ingelesezko, frantsezko eta euskarazko zerbitzuak. Baina 2000. urtetik aurrera beharra handitzen joan

GIZARTEA / amagoia.mujika@gaur8.info

2008. urtean, Iruñeko Justizia Jauregitik 29 hizkuntza desberdinetan 952 ahozko zerbitzu eskatu zituzten Centro de Comunicación Internacional hizkuntza enpresan. Polizia desberdinetatik 260 zerbitzu. 15 hizkuntzetan. Horixe beren lana; epaileak, poliziak eta medikuak eta parean dituztenak elkar uler daitezela.



2000. urtean, immigrazio uholdeak gaildituta, Nafarroako Gobernuak Justizia arloko itzultzaile eta interpretarien lana enpresa pribatu baten esku uztea erabaki zuen. Irigo URIZ | ARGAZKI PRESS

zen, gero eta zerbitzu gehiago eskatzen ziren gero eta hizkuntza gehiagotan. Orduan erabaki zuen Nafarroako Gobernuak lan hori enpresa pribatu baten esku uztea. Eta guk lortu genuen», jarraitu du.

Ingelesa, frantsesa, italiara, alemana, holandarra eta euskara ziren ordura arte beren lanerako tresnak. Baina Justizia Jauregiarekin harremanetan hasi orduko, askotariko enkarguak jasotzen hasi ziren. «Guk ez dugu ezer eskaintzen. Eskatzen dugutena lortzen saiatzen gara», argitu du Arbizuk.

INTERPRETAZIO SOZIALA

Hizkuntza enpresako bulegoan zortzi lagunek egiten dute lan, eta horiek ingelesa, frantsesa, alemana eta euskara lantzen dituzte. «Batetik, Euskara Departamentua dugu eta lau itzultzaile aritzen dira bertan. Nazioarteko Departamentua deitzen dugunak batez ere enpresa pribatuentzat, partikularrentzat eta administrazio publikoarentzat egiten du lan. Normalean itzulpenak izaten dira, eta ahozko interpretazioak ere egiten dituzte. Itzultzaile sare zabala dugu enkargu horietarako. Eta, azkenik, justizia kontuetz arduratzen den saila dago».

Interpretazio soziala da azken horretan eskaintzen dena eta, hain juxtu, hori da hizkuntza enpresa berezi egiten duena. Justizia arloan, poliziekin eta erietxeetan ematen diren itzulpen eta interpretari lanei esaten zaie interpretazio soziala.

«Justizia arloko itzulpenak normalean bat-bateko kontuak izaten dira. Bi zerbitzu mota daude; bata aurreikusitakoa eta prestatzeko denborarekin –halako data zehatzean izango den epaiketa bat adibidez– eta bat-bateko zerbitzuak. Eta horiek asko izaten dira. Gehienak», jarraitu du Arbizuk. Eguneko edozein unetan deitzen diete, adibidez, polizia desberdinekin, interpretari bat behar dutela esanez. «Hiru errumaniar atxilotu dituztela eta azkar joateko esanez deitzen digute adibidez. Ez dutela lortzen elkar ulertzea eta interpre-

GAUR8

2009ko irailaren 11 | III. urtea • 128. zbk
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info


tari bat behar dutela. Edo beste askotan gertatzen da -ja egunero- aurreikusitako epaiketa batean funtzionarioa ahaztu izana interpretari bat eskatzeaz. Epaiketa hasteko zain daudela eta itzultzailea baino ez dela falta esanez deitzen dute, eta gu martxan jartzen gara. Ingelesa, frantsesa, alemana edo euskara zerbitzuak behar badituzte, bulegotik jantzen da norbaitek berehala. Eta beste hizkuntzaren bat baldin bada, badugu sare zabala bat eta interpretari bati deitzen diogu. Asko jota ordu erdian lortzen dugu norbait».

29 HIZKUNTZA DESBERDIN

Datuak oso esanguratsuak dira. 2008an 952 ahoko zerbitzu eskaini zituzten Iruñeko Justizia Jauregian 29 hizkuntza desberdinetan. Albaniera, alemana, arabiera, berberera, bulgariara, kreolera, kroaziara, txinera, edota; esloveniera, euskara, frantsesa, georgiera, nederlandera, ingelesa, itallera, iraniera, japoniera, lingala, lituaniera, urdua, poloniera, portugaleria, errumaniera, errusiera, turkiera, ukrainiera eta wolofa. Horrez gain, Nafarroako polizia desberdinek eskatuta 260 ahoko zerbitzu eskaini zituzten 18 hizkuntza desberdinetan.

Jauregiaren dute eskatzen dieten interpretaria lortzea. Hamar urtean hizkuntza bakarrek interpretaria ez dute lortu; somaliera. «Hilketa bat izan zen eta ezin izan genuen lortu ez Iruñean ez inguruko herri eta hirietan somalieraz zekien inor. Azkenean Nafarroako Gobernua hartu zuen horren ardurua eta Madrildik ekarri zuen interpretari bat», kontatu du Arbizuak.

«Hizkuntza bakoitzeko interpretari bat baino gehiago daukagu. Izan ere, jende horrek bere lana dauka aparte eta agian une horretan ezin dute epaitegira joan. Orduan beste bati deitzen diogu», jarraitu du. «Itzultzaile guztiekin elkarrizketak izaten ditugu hizkuntza maila nahikoa duela eta gutxienezko batzuk betetzen dituela ziurtatzeko. Kasu batzuetan ez da erraza hori ziur-



Hamar urtean hizkuntza bakarrek interpretaria lortzeko zailtasunak izan dituzte, somaliera. Azkenean, Nafarroako Gobernuak berak ekarri zuen interpretari bat Madrildik

Erietxeetatik gutxitan deitzen dute interpretari eske. Egoera horietan beti izaten da etorkinari laguntzeko prest dagoenik. Polizia etxeetan eta epaitegietan ez da halakorik gertatzen

tatzea, hizkuntza oso arraroak direlako eta ezin ditugulako kontrolatu. Baina normalean ez dugu arazorik izaten eta ondo egiten dute beren lana». Horrez gain, eta lanaren izaera berezia kontuan izanda, itzultzaile guztiek kode deontologiko bat bete behar dute. «Interpretari gehienek esaten dute hasieran batez ere gogorra egiten dela inparzialtasuna gordetzea. Gerta daiteke, zu konturatzea sekulako gezurra esaten ari dela, edo kontraesanak esaten ari dela, baina zure lana ez da hori epaitzea, berak esaten duena itzuli behar duzu eta kito».

Kasik hamar urte darama Centro de Comunicación Internacional enpresak Justizia Jauregian lanean eta oraindik epaiketa askotan itzultzaileak ez du jakiten non eseri behar duen. «Prozedura bat falta da. Epaille bakoitzaren arabera modu batez edo bestera aritzen gara eta hori ez da oso serioa».

Pentsatzekoa denez, denetari-ko egoerak bizitzea egokitu zaie. «Normalean gauza xumeak izaten dira, lapurreta txikiak, irainak, liskarrak... baina izan dugu zerbitzu bereziren bat, esaterako, etxe bat mlatzera joan beharra poliziarekin. Muturreko egoera horietako batzuk ere gertatzen dira», kontatu du.

Erietxeetan ere eskaintzen dute zerbitzua eta horietan egoera gogorak ikusi behar izan dituzte. «Zerbitzua eskatzen dutenean ez dute zehaztasun handirik ematen, ia inoiz ez dute esaten zer gertatu den. Eta edozer gauzarekin egin dezakezu topo; istripu txiki bat edo bortxaketa bat». Hala ere, bada desberdintasunik erietxetik polizia etxera edo epaitegira. «Normalean, erietxean gaixorik dagoen etorkinari laguntzeko prest jende asko dago. Beti agertzen da medikuren bat, erizainen bat... bere hizkuntza zerbait ulertzen duena eta interpretari lanak egi-

Golko Irudian Jon Arbizu ageri da, Centro de Comunicación Internacional hizkuntza zerbitzuen enpresako arduraduna. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

JUSTIZIA JAUREGIAN APENAS ENTZUTEN DA EUSKARA

Euskara Departamentua Arbizuren apustu berria izan den eta lan dezente daukate, «kanpoteik uste dena baino askoz gehiago». Askotariko itzulpenak egiten dituzte eta arlo horretan lan askorekin dabilta. Euskarara itzultzeko enkargu asko dituzte.

Baina Justizia Jauregian, apenas eskatzen diren euskarazko interpretariak. «Oso jende gutxi eskatzen du. Bi eskatzaile mota daude. Batetik, benetan itzultzailea behar dutenak, euskal elebakarrak eta gaztelerez nekez moldatzen direnak. Nafarroan, horrelako kasu gutxi daude, baina egon badaude. Horien kasuan haiek euskaraz esaten dutena itzultzen dugu gaztelera. Eta gaztelertik euskararako itzulpena ez dugu egiten, ulertzen dutelako. Gaztelera hitz egitea kostatzen zaie. Eta, beste eskatzaile mota, euskaraz deklaratzeko eskubidea gauzatu nahi duena izaten da, euskararekiko kontzientzia duena. Baina epaitegien munduak beldurra eta errespetua sortzen du, giroa arrotza da eta jende gutxi eskatzen du euskaraz egitea», gaineratu du. Duela gutxi eskaera bitxia izan dute Iruñeko Centro de Comunicación Internacional enpresan. «Zaragozako epaitegi batetik deitu zituzten euskarazko interpretari bat eskatuz. Gizon bat atxilotua zegoen, deklaratzeko zain. Berak euskaraz deklaratzeko eskatu zuen. Hartara, epaitegitik deitu zituzten eta interpretari bat bidali genuen. Oso kasu bitxia izan zen».